

GETXOKO HIRI MUGIKORTASUN IRAUNKORREKO PLANEKO NEURRIEN ZIRRIBORROA

EREMUA	ZK.	NEURRIAK	AZALPENA
Hirigintza	1	Garraio publikoa hartzeko eremuetan jarduera ekonomikoa sortzea sustatzea	<p>Udalerriko langileen kanpo-bidaiak murriztu nahi dira neurri honekin. Metroaren eraginpeko eremuan dauden hiriko edo hiri inguruko tokiei jarduera ekonomikorako kokaleku-lehentasuna ematea da kontua, garraio-gaitasun handia duen sistema aprobetxatze aldera.</p> <p>Horrela, udalerriko egoiliarrek oinez –inguruan bizi badira– nahiz garraio publikoaren sistemaren bidez joan ahalko dira jarduera-eremu horietara.</p> <p>Era berean, beste udalerrri batzuetan bizi direnak erakarriko dituzte eremuok, eta metroaren bidez bideratu ahalko da hori.</p>
Hirigintza	2	Egoiliar gehien galdu dituzten eremuetan biztanleria egonkortzea eta areagotzea	<p>Udalerririk biztanleak galdu ditu azken hamarkadan, baita lehenagotik ere. Egonkortuen dauden eta zerbitzu gehien dauzkaten zonaldeek galdu dute egoiliar-kopuru handiena.</p> <p>Eremu horietan egoiliar berriak kokatzen lagunduko duten hirigintza-neurriak ezartzea da kontua.</p> <p>Hirigintzari, ekonomiari, mugikortasunari eta iraunkortasunari dagokienez, hiri-eremu berriak garatzea baino eraginkorragoa da neurri hau, hiri-eremu berriak urrunduago baitaude zerbitzuetatik eta mota guztietako azpiegitura berriak behar baitituzte.</p>
Hirigintza	3	Plangintza-tresnetan mugikortasunaren azterketa sartzea, enfasi berezia jarritz HAPOan	<p>Hirigintza-plangintzako edozein irudik mugikortasunean edukiko duen eragina sartzeko irizpidea gaineratzea proposatzen da, HAPOari dagokionez bereziki, eta, ahal dela, mugikortasuna modelizatzen tresnak erabiliz.</p>

Hirigintza - Garraio publikoa	4	Ibarbengoako geltokia aprobetxatzea	<p>Geltoki berri horrek garapen berrietarako lurra dauzka inguruan. Aprobetxamendua egiteko bi aukera daude: garapen berriak sustatzea edo metro-zerbitzuarekin lotzeko aparkalekua aprobetxatzea; biak izan daitezke bideragarriak.</p> <p>Lehenengo aukerarekin, garraio publikoko zerbitzu egokia duen eremu batean haziko litzateke udalerrria, eta, horri esker, garraio-modu horrekin bideratuko lirateke bertara egiten diren bidaia gehienak.</p> <p>Bestalde, aparkalekua erabiliz, geltokiko eremua handituko litzateke, eta, horrela, Bidezabal geltokirako sarbidea arinduko litzateke; izan ere, egun, metro-sarearekin lotzeko aparkaleku gisa erabiltzen da geltokiaren ingurua. Bestetik, metrotik urrunduta dauden Getxoko eremuetarako lotura-aparkaleku izateko balioko luke.</p>
Garraio publikoa	5	Getxok barne-harremanetan dituen premiak eta horietan egin daitezkeen hobekuntzak baloratuko dituen ikerketa egitea, garraio publikoari dagokionez	<p>Udalerriko barne-harremanei hobeto erantzungo dien aukera (garraio publikoko zerbitzuak hobetzeko aukera) aztertzea da asmoa; batez ere, metro-zerbitzuak edo garraio publikoko beste zerbitzu batzuek estaltzen ez dituzten harremanen arloan.</p>
Garraio publikoa	6	Garraio publikoaren tarifa-integrazioa ezartzea	<p>Neurri honek, udalaren jarduera-eremua gainditzen badu ere, eremu metropolitarrako garraio publikoko zerbitzuetan bidaiatzen duten pertsonen kostuak murriztuko lituzke.</p> <p>Egiaztatu denez, Getxoko mugikortasunaren zati handiak dauka jatorria edo helmuga Bilboko eremu metropolitarrako beste udalerrri batzuetan. Neurri honi lotzen zaion kostu-murrizketak erakargarriagoa bihurtuko du garraio publikoaren sarea, operadorea zein den gorabehera.</p>
Garraio publikoa	7	Bizkaibusek moteltzat jotzen diren tarteetan abiadura nola hobetu dezakeen aztertzea	<p>Bizkaibusen zerbitzuen azterketetan, abiadura txikiagoko eremuak (10 - 15 km/h) hauteman dira Areeta eta Itzubaltzeta inguruan. Semaforoak egotearekin lotzen dira abiadura txikiagoko eremu horiek.</p>

Garraio publikoa	8	Bizkaibusi buruzko informazioa hobetzea	Zerbitzu honen geraleku batzuek ez daukate lineen planorik. Informazio finkoa emateko taulak jarriz hobetuko da egoera hori.
Garraio publikoa	9	Metroko geltokien irisgarritasuna hobetzea (dibidez, Aiboakoa)	<p>Metroak bidaiari-kopuru handia mugitzen du. Metroko geltokien eremua handituta, sistema hobetuko da, eta, jada erabiltzaile direnak hobeto iristea eragiteaz gain, erabiltzaile berriak erakarriko ditu horrek.</p> <p>Aiboako geltokia izan daiteke adibidea. Ekialderantz, irisgarritasun ona dauka, igogailu makurra baitauka. Mendebalderantz, ordea, mendi-hegala dago, eta etxebizitzetatik ingurune horretako zerbitzu ugarietara zuzenean joatea galarazten du horrek.</p> <p>Mendi-hegalean igogailu bat jartzeko aukera azter liteke, geltokira mendebaldetik zuzenean sartu ahal izan dadin; izan ere, geltokiaren eragite-eremua handituko du horrek.</p>
Oinezkoak	10	Lehentasunezko oinezkoen sarea ezartzea	<p>Oinezkoen arloan, lehentasunezko jardueren sarea zehaztuko da.</p> <p>Ardatz jarraitu eta seguruak jarriko dira, bai nabarmendutako zebrabideak jarriz, bai mugikortasun murriztua duten pertsonentzako irisgarritasuna ahalbidetuz, bai espaloiak zabalduz, oinezkoak seguru eta azkarrago mugitu ahal izan daitezten.</p>
Oinezkoak	11	Eskola-bide seguruak ezartzea	Eskola-bideen ibilbideak zehaztea. Horietan, ikasleen segurtasuna bermatuko da, eskolarako joan-etorriari dagokienez, helduek lagundu behar izan gabe mugitu daitezten.
Oinezkoak	12	Premiak aztertzea, irisgarritasuna mekanikoki hobetzeko	Arrapalak, eskailerak edo igogailuak jarriko balira, oinezkoen harremanak eta garraio publikorako sarbidea hobetuko liriateke orografia konplexua duten udal-eremuetan. (Iparbideren ardatza, esaterako)

Oinezkoak	13	Udalerriko hiri-eremuetan auzo-bihotzak sortzea	<p>Udallerrian sakabanatuta dauden eremuak dira auzo-bihotzak, eta ingurune bateko erdigune bihurtzen dira. Egoiliarrek elkarrekin bizitzeko tokiak dira eremu horiek.</p> <p>Zeregin hori betetzeko zonalde egokienak aztertzea proposatzen da.</p> <p>Horietako batzuk egoiliarrentzat bakarrik izatea azter liteke.</p>
Oinezkoak	14	Kale Nagusia eta horren ingurua oinezkoentzat jartzea (guztiz edo zati batean)	<p>Kale Nagusia merkataritza-jardueraren kontzentrazio-gune garrantzitsua da, eta oinezkoak erakartzen ditu.</p> <p>Bide hori oinezkoentzat jartzen bada, oinezkoak errazago ibiliko dira kale horretan, eta segurtasuna, erosotasuna eta kalitatea erantsiko zaizkio tokiari.</p> <p>Jarduera horretarako, aztertzeko dauden aldaketak egin beharko dira inguruko trafikoan.</p>
Bizikletak	15	Bizikleten sarea osatzea eta integratzea	<p>Azken urteotan, hedatu egin da Getxoko bizikleten sarea. Hala ere, gainerako sarearekin lotuta ez dauden tarteak daude oraindik.</p> <p>Jarduera honekin, segurtasun handiagoa gehitzeko planifikatu diren jarduerak betearazi nahi dira, erabiltzaile berriak iristea erraztearekin bat.</p>
Trafikoa	16	Abiadura-mugei dagokienez, bide-sarean hierarkiak ezartzea	<p>Bideko arintasuna eta segurtasuna hobetzeari begira, kategorien arabera sailkatuko dira bideak, eta kategorien arabera ezarriko dira abiadura-mugak.</p>
Trafikoa	17	30eko eremuak jartzea	<p>Ezbehar-kopurua eta istripuen larritasuna murrizteko xedez, abiadura-muga zorrotzak (30 km/h) jarriko dira askotariko garraio-moduak biltzen dituzten udal-eremuetan.</p> <p>Kaleen sare horri esker, gainera, bizikletek autoekin batera zirkulatu ahalko dute.</p>

Trafikoa	18	Algortatik irteteko eta bertara sartzeko trafikoa hobetzeko neurriak hartzea	Abiadurak GPS bidez erregistratzean, Algortan abiadura txikiko tarteak daudela ikusi da. Tarte horien arintasuna hobetzeko eta udalerriko eremu horretara sartzeko zein hortik irteteko ibilbideak errazteko asmoz har daitezkeen neurriak aztertuko dira.
Aparkamendua	19	Algortako AAZren irismena aldatzea	Algortako aparkamenduaren erregulazioa hedatzeko aukera aztertuko da, ertzeko eremuan sortzen diren arazoak dosifikatzeko.
Aparkamendua	20	Areetako AAZren irismena aldatzea	Areetako aparkamenduaren erregulazioa hedatzeko aukera aztertuko da, bai gaurko erregulazio motari jarraituz, bai aparkamendu-arloko beste irtenbide mota batzuei helduz, eremu batzuetan hauteman diren urritasun-arazoak konpontze aldera.
Aparkamendua	21	Bidetik kanpo dagoen aparkaleku-hornidura areagotzea, kalean espazio publikoa irabazteari begira	Bideko aparkalekuak kentzea eta espazio publikoa beste erabilera batzuetara bideratzea ahalbidetuko duten aparkalekuak eraikitzea pentsatu da.
Aparkamendua	22	AAZren tarifa-sistema aparkamenduko gainerako azpiegiturekin koordinatzea	Aparkamenduko azpiegiturekin koordinatutako tarifa-sistema ezarriko da, egonaldi luzeenak bidetik kanpo egin daitezzen.
Aparkamendua	23	Eremuko AAZrekin koordinatutako tarifekin egitea Manuel Gainzaren plazako aparkalekua	Algortako eremuan aparkaleku-arazoak nolabait arintzeko, Manuel Gainzaren plazako aparkalekuaren tarifek eta AAZren tarifek bat egitea nahi da, egonaldi luzeenak bidetik kanpo egin daitezzen.

Zama-lanak	24	Zama-lanetarako eremuak behar bezala erabiltzen direla ziurtatzea, informazio- eta zaintza-kanpainen bidez	Irregularitasunak atzeman dira zama-lanetarako eremuen erabileran, bai egonaldiaren denborari dagokionean, bai aparkatuta dauden ibilgailu motei dagokienean. Informazioa eman behar zaie erabiltzaileei, eta beharrezkoa da arau-hauste horiek zaindu eta zigortzea, horiek saihesteari eta, horrela, zama-lanak egitea errazteari begira.
Ingurumena	25	Gutxiago kutsatzen duten ibilgailuen erabilera sustatzea, zerga-sistemaren bidez	Gutxiago kutsatzen duten eta elektrikoak diren ibilgailuak erosteko laguntza emango da, diskriminazio positiboaren bidez (udalak ibilgailu horiei ezartzen dizkien zergen arloan) eta diskriminazio negatiboaren bidez (ibilgailu kutsatzaileei ezartzen zaizkien zergen arloan), zerga-bilketaren zenbaketa orokorra ez asaldatzeko moduan.
Ingurumena	26	Udalerrri barruko kutsadura murriztea, AAZren ordainketaren bidez	Udalerrian igorpen kutsatzaileenak murrizteko xedez, AAZren tarifetan ibilgailuaren ingurumen-kategoriaren araberako eskala bat (matrikularekin) ezartzea pentsatu da. Horretarako, DGTko datu-basera unean unean sartzeko aukera egon beharko da. Gutxien kutsatzen duten ibilgailuen tarifak murriztuko dira, eta kutsatzaileenak handituko dira, diru-bilketaren zenbaketa orokorra ez asaldatzeko moduan.
Bideko segurtasuna	27	Bideko segurtasunerako plan bat egitea udalerriko tarte arriskutsuenetarako	Ezbehar-kopuru handia eta biktimak kontzentratzen diren tokietan, istripua edukitzeko arriskua murriztuko duten neurriak ezarri beharko dira. Horretarako, ikerketa espezifikoak egin beharko da, eta, aurretik, neurriak sartu beharko dira HMIPera. Modu espezifikoan, Bidezabal inguruan Uribe Kostako korridorera iristeko biribilgunean istripu asko gertatzen denez, toki horretan aldaketak egitea pentsatu da.